



TREBAKUNTZA 2015-03: -(E)N eta -(E)LAKO

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Ekonomia gaizki **doanaren** berriak ez gintuzke harritu behar.*
2. * *Ameriketara joan zen, han hobeto biziko **zenaren** ustean.*
3. * *Euskara Afrikatik **datorrenaren** hipotesiak indarra galdu du azken urteotan.*
4. * *Berriro elkar ikusiko **dugunaren** esperantza daukat.*
5. * *Alkatetza utziko **duenaren** susmoa hartuta daude udaletxean.*
6. * *Bulegora sartu eta obra amaituta **zegoenaren** berria eman zioten.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

AZALPENA

Ondo berezi behar dira **-(e)naren** eta **-(e)lako**. Biak dira izenaren lagun, baina ez modu berean. Konparatu, esate baterako, esaldiok:

a) * *Ekonomia gaizki **doanaren** berriak ez gintuzke harritu behar.*

Esaldi horrek, bere horretan, honako hau esan nahi du: Ekonomia gaizki doan pertsonaren berriak ez gintuzke harritu behar. Bistan da esaldi hori nahaspilatsua ez ezik okerra ere badela.

b) Ekonomia gaizki **doalako** berriak ez gintuzke harritu behar. Esaldi horrek, berriz, oso bestelako esanahia du: berri baten arabera, ekonomia gaizki doa, eta berri horrek ez gintuzke harritu behar.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Literatur tradizioan ikusten dugunez, **-(e)lako** eta **-(e)n** dira horrelako perpausetarako forma zuzenak:

- **-(e)lako** euskalki guztietan erabili izan da beti eta horrela erabiltzen da gaur egun ere.
- **-(e)n** mendebaldeko euskalkietakoa da, bizkaierakoa eta gipuzkerakoa batik bat, berriagoa eta maiztasun murriztagoa duena.

-(e)lako eta **-(e)n** horrelako izenen ondoan ageri zaizkigu: aitzakia, albiste, berri, damu, esperantza, froga, hitz, iritzi, irudipen, itxaropen, itxura, kezka, konfiantza, kontu, marka, promesa, seinale, sentimendu, susmo, uste, zantzu, zurrumurru...

Beraz:

1. Ekonomia gaizki **doalako** berriak ez gintuzke harritu behar.
2. Ameriketara joan zen, han hobeto biziko **zelako** ustean.
3. Euskara Afrikatik **datorrelako** hipotesiak indarra galdu du azken urteotan.
4. Berriro elkar ikusiko **dugun** esperantza daukat.
5. Alkatetza utziko **duen** susmoa hartuta daude udaletxean.
6. Bulegora sartu eta obra amaituta **zegoelako** berria eman zioten.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Ibon)
Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Ibon)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a
www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99